

## INFORMAZIO OHARRA

### Hitzeko bi gizonei omenaldia: Xabier Amuriza eta Jose Ramon Etxebarria

- *Eusko Ikaskuntzaren 2019ko eta 2020ko Manuel Lekuona Sarien emateko ekitaldia gaur egin da Bilboko Kafe Antzokian, autoritateen, ezagunen eta sarituen senideen artean.*
- *Ekitaldian Lorea Bilbao Bizkaiko Euskara eta Kultura diputatuak eta Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako lehendakariak hartu dute parte.*

**Bilbo, 2021eko abenduak 20.** Pandemiaren ondorioz atzeratuta, bi zeremoniak batera ospatu dira gaur Bilboko Kafe Antzokian, bertaratzte ekitaldi mugatu batean, egungo osasun publikoko baldintzak direla eta. Ekitaldian Lorea Bilbao Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatuak, Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako lehendakariak eta Nieves Fernandez epaimahaikideen ordezkari gisa, hartu dute hitza.

Eusko Ikaskuntzako lehendakariak gogoratu duenez, Xabier Amuriza da Manuel de Lekuona euskal letren eta ahozko literaturaren figura handiaren izena daraman saria jaso duen lehen bertsolaria. Saritua erreferente absolutu gisa definitu du, "bertsolaritzan irakasle, teorialari eta ikertzaile gisa sakondu duen berritzaile" gisa, baita olerkari, eleberrigile, saiakeragile, artikulugile eta itzultzale ere. Halaber, musikaren alorrean ere egin dituen ekarpenak eta diktaduran hartu zuen konpromiso sozial eta politikoa adierazi nahi izan du. Jose Ramon Etxebarriaren ibilbideari dagokionez, euskararen alde egindako lana nabarmendu du, eta normalizazioan unibertsitateko ikerkuntzaren eta irakaskuntzaren esparrutik bere lagunza azpimarratu du. Ana Urkizaren ustez, bi figura horiek hitzarekin egiten dute lan: "Hitza ezagutzarako eta komunikaziorako; aditza sentiberatasunaren eta kulturaren, zientziaren eta Euskal Herriko kontzientziaren zerbitzura".

Xabier Amurizak ere zientziarekin lotutako hitza aipatu du, diziiplina horretan "era inteligeantean bizitzeko' osagaietako bat" baitauka. Zorioneko del aitortu du, zahartu eta esperientzia pozgarri batzuez gozatu ahal izan duelako, besteak beste, Eusko Ikaskuntzaren aitorpen horretaz. "Saritutako izenen zerrendan nire burua ikusita, nire utopia betetzen ari dela uste dut", adierazi du. Eta Etxeparereren inguruan egin dituen azken lanen harira, zeinetan ikusten baituen euskal idazletzat bere burua hartu zuen lehenengoa eta, hortaz, "eusklaldunik zoriontsuena", Amurizak bere burua "bigarren euskaldunik zoriontsuena" bezala ikusten du.

Jose Ramon Etxebarriak euskaltzale, irakasle eta ikertzaile lanetan parte hartu duen lantaldeekin partekatu nahi izan du saria. Eta jarraian bi ohar adierazi ditu. Lehenik eta behin, egunero jardunean euskaraz hitz egiten duen komunitate zientifiko bat dagoela, eta baieztapen hori datu zehatzekin irudikatu du. Bigarrenik, “Euskarak gizarteko bizimodu arruntean euskaldunok irauteko behar dugun den-dena esateko ahalmena dauka; eta gaitasuna du, baita ere, oraindik existitzen ez dena esateko... edo asmatzeko ere”. Bere hitzaldiaren amaieran, Eusko Ikaskuntzaren goiburuarekin erabat identifikatuta dagoela aitortu du: “Txikiak handia benzi leidi / Asmoz ta Jakitez”.

Saria irudikatzen duen Remigio Mendibururen eskulturak jaso ondoren, bi sarituek elkarrizketa izan dute elkarren artean eta bertaratutako publikoarekin. Hemendik egun batzuetara, hizketaldiaren grabazioa Eusko Ikaskuntzaren webgunean jarriko da ([www.eusko-ikaskuntza.eus](http://www.eusko-ikaskuntza.eus)), Solasaldiak ikus-entzunezkoen atalean.

## NOTA INFORMATIVA

### Homenaje a dos hombres de palabra: Xabier Amuriza y José Ramón Etxebarria

- *La entrega de los Premios Manuel Lekuona de Eusko Ikaskuntza 2019 y 2020 ha tenido lugar hoy en el Kafe Antzokia de Bilbao entre autoridades, personas conocidas y familiares de los premiados.*
- *En el acto han intervenido Lorea Bilbao, Diputada de Euskera y Cultura de Bizkaia, y Ana Urkiza, Presidenta de Eusko Ikaskuntza.*

**Bilbao, 20 de diciembre de 2021.** Aplazadas por causa de la pandemia, ambas ceremonias se han celebrado unificadamente hoy en el Kafe Antzokia de Bilbao en un acto limitado en asistencia debido a la situación de salud pública actual. En el acto han tomado la palabra Lorea Bilbao, Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte, Ana Urkiza, Presidenta de Eusko Ikaskuntza, y Nieves Fernández, en representación de los jurados, además de los premiados.

La Presidenta de Eusko Ikaskuntza ha recordado que Xabier Amuriza es el primer bertsolari en recibir el galardón que lleva el nombre de la gran figura de las letras vascas y de la literatura oral que fue Manuel de Lekuona. Ha definido al premiado como “un referente absoluto, un renovador que ha profundizado en el bertsolarismo como docente y teórico, estudioso e investigador”, además de poeta, novelista, ensayista, articulista y traductor, sin olvidar su faceta musical ni su compromiso social y político desde la dictadura. De la trayectoria de José Ramón Etxebarria ha resaltado su trabajo en favor del euskera a cuya normalización ha contribuido desde el ámbito de la investigación y la enseñanza universitarias. Para Ana Urkiza, ambas figuras tienen en común el trabajo con la palabra: “Palabra para el conocimiento y la comunicación; el verbo al servicio de la sensibilidad y la cultura, de la ciencia y la conciencia de Euskal Herria”.

También Xabier Amuriza ha aludido a la palabra vinculada con la ciencia, disciplina en la que tiene “uno de los ingredientes de mi ‘forma inteligente de vivir’”. Se confiesa afortunado por haber podido envejecer y haber disfrutado de algunas experiencias alentadoras entre las que destaca este reconocimiento de Eusko Ikaskuntza. “Al verme en la lista de nombres premiados pienso que mi utopía se está cumpliendo”, ha señalado. Y al hilo de sus últimos trabajos en torno a Etxepare, en quien ve al primer escritor euskaldun que tuvo conciencia

de serlo y por ello “el vasco más feliz”, Amuriza se reconoce como “el segundo vasco más feliz”.

José Ramón Etxebarria ha empezado compartiendo el premio con los grupos de trabajo con los que ha colaborado como euskaltzale, docente e investigador. Y a continuación ha hecho dos observaciones. Primeramente, la existencia de una comunidad científica que habla euskera en su actividad diaria, afirmación que ha ilustrado con datos concretos. En segundo lugar, que “el euskera tiene el poder de decir todo lo que los vascos necesitamos para subsistir en la vida ordinaria de la sociedad; y también tiene la capacidad de decir lo que todavía no existe... o de inventar”. Ha cerrado su intervención reconociéndose plenamente identificado con el lema de Eusko Ikaskuntza: “Txikiak handia benzi leidi / Asmoz ta Jakitez”.

Tras la entrega de sendas estatuillas diseñadas por Remigio Mendiburu, ambos premiados han mantenido un diálogo entre sí y con el público asistente cuya grabación se colgará posteriormente en la web de Eusko Ikaskuntza ([www.eusko-ikaskuntza.eus](http://www.eusko-ikaskuntza.eus)) dentro de la sección audiovisual Solasaldiak.